

AKTA ESKOLA KIROLA

BILERAREN XEHETASUNAK

Bilera zenbakia	3/2016	Lekua	udaletxea
Bilera mota	ohikoa	Hasiera ordua	17:00
Data	2016-03-15	Amaiera ordua	18:45

BERTARATUTAKOAK	Izen-abizenak
Udal ordezkariak	Esti Aldeiturriaga Xabier Lertxundi
Elizatxo ikastolako ordezkariak	Julen Goia Amaia Alberdi
Langile ikastolako ordezkariak	Mikel Olabide Eli Lizaso
Astigarragako Herri Eskolako ordezkariak	Izarne Zelaia Rafa Zuza
Urumeako ordezkaria	Ander Gutierrez
Idazkaria	Manuel Aierbe

GAI-ZERRENDA:

- 1.- Aurreko aktak onartzea: 2016-01-12 eta 2016-02-16
- 2.- Errugbia.
- 3.- Elizatxoko frontoia.
- 4.- Atletismoko alebinak.
- 5.- Ostiral goizeko bilerak.
- 6.- Eskaerak eta galderak.

1.- Aurreko aktak onartzea: 2016-01-12 eta 2016-02-16

2016ko urtarrilaren 12an eta otsailaren 16an egindako bileren aktak onartu egin dira.



F:\manolo-a\WORD\
e-1\2015-2016 ikasta



F:\manolo-a\WORD\
e-1\2015-2016 ikasta

2.- Errugbia.

Azkeneko eskola kiroleko bileran errugbiko kasua hobeto aztertu behar zela onartu zen. Kurtso honetan entrenamenduetako egunak desberdinak dituzte, kuotak hainbat kasutan bikoiztu egiten dira, e.a. Hori dela eta, erabaki da hurrengo kurtsorako errugbia kirol berezi moduan tratatzea. Errugbiko klubarekin baldintzak adostuko dira, eta beste elkarteei azalduko zaizkie erabaki honen zergatiak.

3.- Elizatxoko frontoia.

Astigarragako guraso batzuek esan zuten Elizatxoko frontoia eskasa gelditzen zela eskola kiroletarako, eta Astigarragakoa libre baldin bazegoen zergatik ez ziren partidu gehiago han jokutzen. Printzipioz, eta Astigarragan arazorik ez badigute jartzen behintzat, onartu da partidu gehiago han jartzea. Hala eta guztiz ere, aurrena ikusi behar da hurrengo kurtsorako zenbat ikasle apuntatzen diren pilota eta pala egiteko. Elizatxoko frontoian jokatu behar baldin bada, hobe pala sartzea, eskupilotako pilotak lehenago puskatzen dira eta.

4.- Atletismoko alebinak.

Astigarragak proposatu zuen jardunaldi guztiak Hernanin egin beharrean, batzuetan Donostiara joatea. Bere momentuan horrela onartu zen, alde batetik nahiko ikasle zeudelako herrian bertan egiteko, eta bestetik askotan saioak igandeetan izaten zirelako. Aurrena ikusi behar da datorren kurtsorako zenbat ikasle apuntatzen diren atletismoa egiteko. Hala eta guztiz ere, Donostiara joanez gero, askoz jota bi jardunaldi izango lirateke.

5.- Ostiral goizeko bilerak.

Dirudenez, lehen ostiral goizetan egiten ziren bileren falta nabaritzen da.



Egun, udaletxean egiten diren bilerak, funtsean, lehen ostiraletan egiten zirenak dira.

Onartu egin da koordinatzaileek eta kiroldagiko teknikariak elkarrekin egiten zituzten bilerak berriro egitea, asteazkenetan 12:00etan. Lehenengoa apirilaren 6an egingo da.

Aipatutakoa aurrera behar den bezala eraman ahal izateko, ondo zehaztu behar dira koordinatzaileen funtzioak Udaleko batzordean. Gutxieneko betebeharrak eta funtzioak jarri behar dira, elkarrekin egin behar direnak behintzat.

Koordinatzaileek hau ekarri behar dute:

- egun zenbat ordu sartu behar duten
- egun zer funtzio bete behar duten

6.- Eskaerak eta galderak.

- Astigarrako zinegotzia bilera honetara etorriko da. Gaur ezin zuen.
- Eskola kiroleko proiektua aurrera eramateko plangintza (hoja de ruta) egin behar da.
- Komeni da oroigarri bat bidaltzea, batik bat gurasoei, bilera honetan parte-hartzea beharrezkoa dela gogorarazteko.

Hurrengo bilera: apirilaren 12an, 17:00etan.

Beste aztergairik ez dagoenez, bilera amaitu egin da. Eta horrela jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, honako akta hau egin dut.

Hernanin, 2016ko martxoaren 15ean